

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

Agindua, 2020ko urtarrilaren 24koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez adierazten baita okupatu egin behar direla desjabetze honek eragindako ondasunak eta eskubideak: «Nerbioi Ibaiaren Goiko Arroaren saneamendurako kolektoreen proiektua, Laudioko, Orozkoko, Aiarako eta Amurrioko udalerrietan (Araba eta Bizkaia)»

Ikusi da «Nerbioi Ibaiaren Goiko Arroaren saneamendurako kolektoreen proiektua, Laudioko, Orozkoko, Aiarako eta Amurrioko udalerrietan (Araba eta Bizkaia)» proiektuari buruzko espedientea.

AURREKARIAK

1. Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Uraren zuzendari nagusiaren 2018ko maiatzaren 11n, teknikoki onartu zen «Nerbioi Ibaiaren Goiko Arroaren saneamendurako kolektoreen proiektua, Laudioko, Orozkoko, Aiarako eta Amurrioko udalerrietarako (Araba eta Bizkaia)».

2. Espediente horrek biltzen du proiektuak hartzen dituen ondasunen eta eskubideen zerrenda, zehatz-mehatz eta banan-banan zehaztuta eta ondo bereizteko behar beste datuekin.

3. Proiektuaren eraginpeko lursailak okupatu behar dira, aurreikusitako azpiegiturak eraikitzeko. Horrela beteko dira hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko 91/271/EEE Zuzentarauan ezarritako epeak.

4. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko uztailaren 3ko Aginduaren bidez ebatzen da desjabetzeko espedienteari hasiera ematea eta «Nerbioi ibaiaren goi-erroaren saneamendurako kolektore-proiektua, Laudio, Orozko, Aiara eta Amurrioko udalerrietan (Araba eta Bizkaia)» gauzatzeko desjabetu behar diren ondasunen eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea.

5. Jendaurreko informazioaren fasea bukatutik, eta eragindako interesdun batzuek egindako eskaeraren ondorioz (beren finken afekzioak doitu nahi baitituzte), AM-23 eta AM-24 finken afekzioak doitu izan dira. Ondorioz, eraginpeko AM-25, 26 eta 27 finkak espedientearengatik desafektatu dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Plan Hidrologiko Nazionalaren uztailaren 5eko 10/2001 Legean jasota daude Nerbioi Garaiko saneamendu- eta arazketa-lanak. II. eranskinean (Inbertsioen zerrenda).

Bigarrena. Lege horren 36.5 artikulua arabera, II. eranskinean aipatzen diren obra guzti-guztiak interes orokorrekoak dira, bi lege-xedapen hauetan aurreikusitako ondorioekin: Uraren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 44.2 eta 119. artikulua, eta Nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 10. artikulua.

Hirugarrena. Uren Legearen 130. artikulua xedatzen duenez, interes orokorreko obra hidraulikoen proiektuak onartzeak berarekin dakarrela aitortzea onura publikokoa dela, eta eskubideak

eskuratu eta ondasunak okupatu egin behar direla, nahitaezko desjabetzeari eta aldi baterako okupazioari ekin ahal izateko, dagokion legeriari jarraikiz.

Laugarrena. Nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 20. artikulua eta lege horren Erregelamenduko dagozkionek ezartzen dutenez, jendaurrean egondako epean aurkeztutakoek egindako alegazioak ikusi eta aztertu ondoren emango da okupatzearen beharrari buruzko ebazpena, eta, ebazpenean zehaztuko dira desjabetzearen eraginpeko ondasunak eta eskubideak.

Bosgarrena. Nahitaezko desjabetzeari buruzko Legearen 21. artikulua ezartzen du okupazio-beharrari buruzko erabakiarekin hasten dela desjabetze-espedienteak.

Aipatutako lege-manuak eta horiekin bat etorri eta erabilgarri diren gainerakoak ikusita, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Erabakitzea okupatu egin behar direla proiektu hau gauzatzeko desjabetzeak eragindako ondasunak eta eskubideak: «Nerbioi Ibaiaren Goiko Arroaren saneamendurako kolektoreen proiektua, Laudioko, Orozkoko, Aiarako eta Amurrioko udalerrietan (Araba eta Bizkaia)». Ondasun eta eskubide horiek eranskinean jasota daude.

Bigarrena. Hasiera ematea proiektuak eragindako ondasunak eta eskubideak okupatzeko nahitaezko desjabetzea egiteko espedienteari.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu diezaioke Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dezake Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarilaren 24a

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ

ERANSKINA: ERAGINPEKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

FINKA ZK.	UDALERRIA	TITULARRA	BEHIN BETIKO DESJABETZEA M ²	UBIDEAREN ZORTASUN-ALDEA M ²	ALDIBATERAKO OKUPAZIOA M ²	POLIGONOA	LUR- PARTZELA
AM-23	Amurrio	Parques Industriales Gran Europa Norte S. A.	0	504,00	1.092,00	16	97
AM-24	Amurrio	Parques Industriales Gran Europa Norte S. A.	0	1.332,00	2.886,00	16	96
AM-28	Amurrio	Amurrioko Udala	0	1.228,30	2.218,85	16	289
AY-100	Aiara	Dolores Ibarra Irastorza	250,98	385,52	619,50	3	1364